

**KIROL ARLOAN AHOIKULARITZA TEKNIKOA, IKASTAROAK, ETA JARDUEREN
KOORDINAZIOA ETA KUDEAKETA ZERBITZUARI ESLEITZEKO ARAUTUKO DABEZAN
ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIAK**

LEHEN BALDINTZA.- Xedea eta sailkapena.

Agiri honen arabera egiten den kontratuak xede hau izango dau: Kirol arloko ikastaroak eta jarduerak koordinatu, aholkularitza tekniko eman eta kudeatzea. Kodea hau da CPV92610000-0, 92620000-3 eta 3920000000-1.

Zerbitzuan besteak beste, gutxienez ondorengoak sartuko dira.

1.- Kirol ikastaroak eta jarduerak plangintza, eskalada, padel, tenisa eta eskaitu daiteken beste edozein.

Arlo honetan entzun egin beharko dira kirol-eragileak eta alkarteak (jarduerak eta planean sartutako ikastaroak) urteko 2000 ordu batzuek arte.

2.- udaleko kirol-instalazioen erabilera sustatzea eta arautzea.

3.- kirol azpiegituren, erabilera eta mantenuari buruzko azterketa.

4.- Kirol arloko aholkularitza (Kirol arloko diru-laguntzak, eta beste batzuk.)

5.- kirol-zerbitzuari buruz hiru hilabete txostenak egitea

6.- jarduerak eta ikuskizunak antolatzea udaleko alkarte eta kirol-eragileek arte.

7.- Udala, kultur-etxea eta herritarren artean informazioa jarria kudeatzea

8.- Emondako zerbitzuei buruzko txosten tekniko urtero egitea

Kontratua zerbitzu administrazio-kontratutzat hartuko da, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen dauen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 10 eta 19. artikuluen arabera.

BIGARREN BALDINTZA.- Hautatzeko jardunbidea eta esleipena.

Kontratu hau esleitzeko modua jardunbide irekiz izango da (hainbat esleipen-erizpidez). Interesa daukan edozeinek proposamen bat aurkeztu ahal izango dau eta ezingo dira adostu kontratuaren baldintzak, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 157. artikuluen arabera.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onuragarriena zein den zehazteko, esleipen-irizpide hauek hartuko dira kontuan: azaroaren 14ko herri alorreko kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onesten dauen 3/2011 Legegintza Errege Dekretuaren 150.1. artikuluen arabera.eta orri honetako zortzigarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

Baldintzen agirian azaltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat egonez gero, ezin izango da adierazi lehiaketa bertan behera geratu dela.



HIRUGARREN BALDINTZA.- Kontratistaren profila.

Udal honek, bere kontratu jardueraren gaineko informazioaren gardentasuna eta herritarren esku egongo dela ziurtatzeko, beste edozein publizitate baliabide erabiltzeko kalterik egin gabe, Kontratatzailaren Profila dauka ezarrita, hurrengo web orri honetan erregulatutako zehaztapenen arabera ikusteko moduan

www.gorliz.net

LAUGARREN BALDINTZA.- Kontratuaren zenbatekoa.

Lizitazioaren oinarritzko prezioa 128.177,96 eurokoa da. Aurreko prezio hori honelaxe dago banatuta: 105.932,20 euroko eta 22.245,76 euro, indarrean dagoen Balio Erantsiaren gaineko Zerga. % 21.

Zenbatekoa ordainduko da indarrean dagoen udal aurrekontukoaren pentzura. Behar adinako kreditua dago Udalak onartutako zenbatekoraino, eta kontratua finantzatzeko ekarpenen erabilgarritasuna erabatekoa dela egiaztatuta dago.

BOSGARREN BALDINTZA.- Kontratuaren iraupena.

Kontratu honen iraupenaldia urte 2koa izango da. Ondorioak izango ditu kontratua gauzatuko dan egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

SEIGARREN BALDINTZA.- Kontratatzeko gaitasunaren egiaztapena

Proposamenak aurkeztu ahal izango dabeze pertsona natural edo juridikoek, espainiar edo atzeritarrek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badabe, kontratatze inolako debekurik ez badabe, eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatzen badabez.

1. Enpresarien **jarduteko gaitasuna** honela egiaztatuko da:

Gorlizko Udalarekin kontratatuta ahal izango dabe norbanakoak zein lege nortasundun norbanakoak espainiar zein atzeritarrek, jarduteko gaitasun osoa izanda, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluan ezarritako egoeratan ez badagoz, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 73. artikuluan ezarritako bitartekoaren bidez egiaztatu ahal izango da.

a) **Pertsona juridikoak** diren enpresarien jarduteko gaitasuna egiaztatuko da eraketako eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sorrera-egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez. Dena delako agiri horretan jarduerak zer arauen

arabera arautzen diren adierazita egon beharko dau eta, gainera, pertsona juridiko horri dagokion erregistro publikoan inskribatuta egon.

b) **Europar Batasuneko kide den estaturen batekoak izan, baina Espainiakoak ez diren enpresarien** jarduteko ahalmena egiaztatzeko, bizi diren Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenen araberrako zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, araudian ezarritako baldintzak betez.

c) **Atzerriko gainerako enpresariak** enpresaren helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrek edo kontsuletzeko bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko dute.

2. Azaroaren 14ko 3/2011 Legeak, herri-alarreko kontratuei buruzkoak, 60. artikuluan adierazitako **kontratatzeko debekurik ez dabela frogatu** behar dabe enpresariak. Horretarako:

a) Kasua zein den, lekukotza judiziala edo administrazio-ziurtagiria aurkeztu beharko dabez. Horretarako eskuduntza dauenak agiri horiek egin ezin baditu, administrazioko agintaritzak, notario publiko batek edo erakunde profesional kualifikatu batek egindako erantzukizunpeko adierazpen batek ordez daitez.

b) **Europako Batasuneko kide diren estatuetako enpresak badira**, dagokion estatuko legerian horretarako aukera ematen bada, enpresariak agintaritza judizial baten aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango du.

3. Enpresariaren kaudimena:

3.1 **Enpresariaren ekonomia eta finantza kaudimena** era hauetako baten edo batzuen bidez egiaztatu daiteke:

a) Lehiatzailearen ekonomia kaudimenari buruzko finantza-erakunde baten adierazpena.

b) Lan arriskuengatik kalte-ordaineko aseguru bat badutela egiaztatzen dauen agiria, izan leitekezan kalteak estaltzeko, gutxienez 150.000 eurotan o escrito de compromiso de suscribir dicha póliza en el supuesto de resultar adjudicatario del presente contrato.

3.2.- Enpresariaren kaudimen teknikoa ondoren adierazten diren era hauetakoen bidez egiaztatu daiteke:

a.- Azken hiru urteetan egindako zerbitzu garrantzitsuen zerrendaren bidez. Zerrendan datu hauek aipatu behar dira: zenbatekoa, data eta hartzailea.

Eskumendun organoak egindako edo ikusonetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko da.

b.- Enpresak zerbitzua gauzatzeko zer teknikari edo atal tekniko (enpresa barrukoak izan nahiz ez), eta bermatu egin behar da ikastaroak euskeraz emongo direla, salbuespena zurituta badago.

c.- Aitorpena, obrak egiteko baliatuko diren makinak, materiala eta talde teknikoa zehaztuko duena. Aitorpenarekin batera horren egiaztagirak aurkeztu beharko dira.

d. Konpromisoa zerbitzua emoteko astean bi egunez urteko 52 asteetan zehar Kultur-etxean, ordutegi honetan: Arratsaldeko 6etatik 8ak arte.

ZAZPIGARREN BALDINTZA.- Proposamenak eta administrazio-agiriak aurkeztea

Eskaintzak aurkeztuko dira Gorlizko Udaletxeko sarrera erregistroan, Eleiz Plaza z/g, Jendaurreko ordutegian, egutegiko hamabost (15) eguneko epean iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita eta Kontratatzaileraren profilean.

Proposamenak postaz, telefaxeaz, posta elektronikoz bidez edo telematikoz, Herri Administrazioen Lege-Araubidearen eta Administrazio Jardunbide Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako tokietako edozeinetan.

Proposamenak postaz bialtzen direnean eskaintzaileak bidalketa-eguna ziurtatu egin beharko dau posta-bulegoan eta kontratazio-organoari iragarri eskaintzaren bidalketa telexez, faxez edo telegramaz egunean berean, eta bertan adieraziko da espedientearen zenbakian kontratuaren xedearen titulu osoa eta eskaintzailearen izena.

Udal idazkariak egingo dau telexez, faxez edo telegrama jaso izanari buruzko ziurtagiria eginbideratzearen bidez Baldintza biak betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko kontratazio-organoak jaso ezker eskaintza-iragarkian jarritako epea amaitu ostean. Edozein modutan ere, data hori eta hamar egun igarota ez badira jaso agiriak ez dira onetsiko.

Elektronika, informatika eta telematika bitarteko erabilgarriak bete egin beharko dabez azaroaren 14ko 3/2011 Legegintza Errege-Dekretuaren hamaseigarren xedapen gehigarrian jarritako baldintzak.

Eskaintzaile bakoitzak ezin izango dau aurkeztu proposamen bat baino gehiago. Ezin izango dau aurkeztu ere beste batzuekatz batera aldi baterako batasunean bakarka egin badau edo aldi baterako batasun bat baino gehiagotan agertzen bada. Arauok urratu ezker ez dira onetsiko berak izenpetutako proposamen guztiak.

Interesdunak aurkeztuko dabezan proposamenak administrazio baldintzen orriotan jasotakoa bete beharko dabe.

aurkezteak esan nahi dau oinarri hauetako arauak berariaz eta baldintzarik barik onartzen direla .

Eskaintzan parte hartzeko proposamenak eskaintzaileak izenpetutako hiru gutun-azal itxitan aurkeztuko dira eta bertan adieraziko da jakinarazpenetarako helbidea zein dan. Bertan hau idatziko da: Gutun-azalen izenak hau dira:

«A» gutun-azala: ADMINISTRAZIO-AGIRIAK

B GUTUN-AZALAPROPOSAMEN EKONOMIKOA eta AGIRIAK (MODU AUTOMATIKOZ / MATEMATIKOZ) (ERIZPIDE OBJEKTIBOAK)

C GUTUN-AZALA: (BALIO-IRITZIEN MENDE AZTERTZEKOAK DIREN AGIRIAK)

Gutun-azal bakoitzean sartu beharreko agiriak jatorrizkoak izango dira edo kopiak jatorrizkoarekin ziurtatuta, indarrean diren legeen arabera.

Gutun-azal bakoitzaren barruan ondorengo agiriak sartuko dira , eta zerrenda bat ere.

— A gutun-azala: Administrazio-agiriak.

a) Enpresariaren nortasun juridikoa egiaztatzen daben agiriak.

a.1) Nortasun Agiria, bere izenean jardun ezker.

a.2) Enpresa pertsona juridiko bat balitz, Merkataritza Erregistroan erregistratutako eratzeko idazkia edo aldatzeko idazkia, hala dagokionean, betekizun hori derrigorrezkoa denean aplika daitekeen merkataritzako legediari jarraiki. Hala izan ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatuko dau, eraketa agiria edo agiriaren bidez, estatutuen edo sortze-agiriaren bidez, eta hor jasoko dira jardueraren arauak, eta hala badagokio, inskribaturik dagokion erregistro ofizialean.

a.3) Europar Batasuneko beste estatu batzuetako edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Erabakia sinatu daben beste estatu batzuekoak ez diren espainiako enpresak jarduteko gaitasuna egiaztatu egin beharko dabe herri alorreko kontratuei buruzko araudi orokorreko I eranskinean adierazten diren erregistroetarikore baten izena emonda dagozala.

Gainontzeko atzerriko enpresariak jarduteko gaitasuna egiaztatu egin beharko dabe enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Misio Diplomatiko iraunkorrak edo Kotsuletxeko Bulegoak emandako txosten baten bidez; txosten horrek adierazi beharko du, aurretiaz enpresak hori egiaztatu ondoren, dagokion enpresa erregistratuta dagoela tokiko lanbide- edo merkataritza-erregistroan edo antzekoren batean, eta halakorik ezean, kontratuaren xedearen eremuko jardueretan aritu ohi direla.

Espainiak duen Misio Diplomatiko iraunkorrak emondako txostena aurkeztu behar dabe eta hor egiaztatu beharko da enpresaren jatorrizko estatuak aukera emoten deusiela Espainiako enpresei pareko sektore publikoko ente, organismo edo entitateekin egiten diren kontratazioetan parte hartzeko

b) Lehiatzaileak ordezkari bidez dihardunean hori egiaztatzen dabezan agiriak.

b.1) Beste norbaiten ordezkari agertu edo proposamenak sinatzen dabenak hauxe

aurkeztu behar dute: ordezkaritza ahalordearen notarioan egindako kopia.

b.2) Lehiatzailea legenortasunduna bada ahalordeak Merkataritza Erregistroan erroldatuta egon behar du, legezkatu daitenean.

b.3) Era berean, ordezkaritza ondorioetarako askietsitako ahalordea daukan norbanakoak aurkeztu behar dau bere nortasun agiri nazionalaren fotokopia, administrazioak egiaztatuta, edo bere nortasun-agiria notarioaren agiri bidez.

c).- Erantzukizunpeko adierazpena, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluan ezartzen dituen debekuetako bat bera ere ez duela adierazten duena. (Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 73. artikuluan agindutakoaren arabera zurituta.)

Adierazpen horretan azalduko da zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzako bete beharrak egunean izatea, eskatzaileak baldintza horri buruzko ziurtagiria auzatu behar izan arren esleipena egin aurretik

d).- ekonomia, finantza eta teknika arloetako kaudimen edo profesionala betetzen dituela frogatzen dabezan agiriak.

Sailkapena jaso zain dauden enpresek horretarako beharrezko eskaera egin dutela frogatzen duen dokumentua entregatu behar dute; eta egiaztatu, era berean, eskatutako sailkapena lortu dutela, dokumentazioaren akatsak konpontzeko edota falta diren dokumentuak aurkezteko aurreikusitako epearen barruan Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua garatzeko araudian

e) Jakinarazpenak egiteko posta helbide elektronikoa.

f) Enpresa atzeritarrek adierazpen bat aurkeztu beharko dute, non adierazi beharko duten Espainiako edozein epaitegi edo auzitegi motaren jurisdikzioaren mende jarri direla, kontratuak zuzenean edo zeharka eragin ditzakeen gorabehera guztietarako, eta hala dagokionean, egoki dakiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egin beharko deustie.

g) Lehiaketara enpresa-elkarte batek aurkezten bada, elkarte horretan sartuta lehiatu nahi duten enpresariak hura osatzen dabenen izenak eta beste gorabeherak adieraziko dabez, besteak beste, bakoitzak zernolako parte-hartzea daukan hartan eta guztiek beren gain hartzen dabela aldi baterako elkarte bat behar dan moduan osatzeko konpromisoa, esleipena egokitzen bajakie. Era berean, enpresek elkarteko ordezkari edo ahalduen bakar bat aukeratu beharko dabee, askietsitako ahalorde hornituta, kontratua iraungi bitartean hartatik eratortzen diren eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko, kobrantza eta ordainketa handiak egiteko ahalorde mankomunatuak emateko aukera. baztertu barik.

B GUTUN-AZALA

a) Proposamen ekonomikoa.

Hurrengo eredu honen arabera aurkeztu behar da:

.....jaunak/andreak, jakinerazpenetarako helbidea:
....., kalea, zk.; NAN:
entitatearen izenean (IFK.....) dihardue la, eta

zerbitzua kontratatzeko (prozedura irekia, eskaintza ekonomiko onuragarriena, adjudikazio irizpide batzuk) espedientearen berri izan duelarik, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, zk.an,egunean, eta kontratatzailearen profilean; adierazten dot, batetik, ezagutzen dudala kontratuaren oinarri den Plegua eta, bestetik, osorik onartzen dodala, lizitazioan parte hartuz eta, era berean, konpromisoa hartzen dodala, kontratuaren xede dana egiteko zenbateko honen truke: euro, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga, euro.

.....en., 20__koarenan

Lehiatzailearen sinadura

Izenpetuta. _____.

C GUTUN AZALA: BALIO-IRITZIZ BIDEZ AZTERTZEKO AGIRIAK

Balio-iritziz irizpideak aztertzeako beharrezkoak diren agiriak sartuko dira.

ZORTZIGARREN BALDINTZA.- Esleitzeko irizpideak.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onuragarriena zein den zehazteko, esleipen-irizpide hauek hartuko dira kontuan:

A. BEREZ AZERTU DAITEKEZAN ERIZPIDEAK

B. PUNTUEN GOITIK BEHERAKO HURRENKERAN: 55 PUNTU.

- **Salneurria:** 55 puntu arte.
- Zenbateko merkeena eskainiko dauen lehiatzaileak lortuko ditu puntu guztiak, eta gainontzeko lehiatzaileei dagokiezan puntuak emongo jakie hiruko-erregelaren bidez.

Formula honetan erabiliko da neurriz kanpoko beherapenei buruz ezarritakoa azaroaren 14ko herri-alorreko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen 3/2011 14 Legegintzako Errege Dekretuan.

herri-administrazioetako kontratuei buruzko Araudi nagusia onesten dauen urriaren 12ko 1098/2001 errege-dekretuan.

C. BALIO-IRITZIEN MENDE AZTERTZEKOAK DIREN AGIRIAK: 45 PUNTU

b.1.- Zerbitzua kudeatzeko Plana/ Txosten tekniko (Zerbitzuari buruzko plana, metodologia, jardueren antolaketa, ikastaroak, kirol- ekitaldiak .) Udala jakinararen gainean jarrita , hileru onespina jasotzeko, kontratu hau betetzeko atxikitako lan-taldeak, tresneria eta baliabideak eta gizabaliabideak et alehen baldintzan sartutako edukiak koordinatzea: 30 puntu

Erizpide hau azaltzeko txostena gehienez ere 20 orrialdekoa izango da.

b.2.- Beste hobekuntza batzuk: 15 puntu

- Boulder eta padel jarduerak abian jarzteko eta kudeatzeko berariazko proposamena, Kirol-alkarte eta erakundeen ekarpenak sartuta eta boulderraren mantentze-lanak betetzeko jarraibideari lotutako proposamenak.

- Beste edozein ekarpen, zerbitzuari lotutako hobekuntza bada.

Txostenaren luzaera gehienez 10 orrialdekoa izango da.

BEDERATZIGARREN BALDINTZA.- Kontratazio-mahaia.

herri-alorreko kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 14 Legegintzako Errege Dekretuko bigarren xedapen gehigarriko 10. atalean agindutakoaren arabera , eta herri-alorreko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007, legea zati baten garatzen dauen maiatzaren 8ko 817/2009, errege-dekretuko 21. artikuluaaren arabera,

Kontratazio-Mahaia osatuko dabe Udalbatzako kide batek eta kideak izango dira idazkarria eta kontu-hartzailea, eta kontratazio-organoak izendatutako beste batzuk (Tokiko gobernu batzarra, Alkatetza dekretuaren arabera, eskumenak ordeztari buruzkoa), udalbatzarn zerbitzura dagozan langileen artean eta udalbatzako hautetsiak, beti ere , sekula bez hiru baino gutxiago. Udalbatzako langile batek egingo ditu idazkariaren lanak.

Udal alderdi politikoak erabakiko dabe nortzuk izango diran kontratazio-mahaiko kideak.

HAMARGARREN BALDINTZA.- Administrazioaren eskumenak.

Azaroaren 14ko herri alorreko kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onesten dauen 3/2011 Legegintza Errege Dekretuaren 210. artikuluaaren arabera, kontratazio-organoak ondorengo eskumenak ditu.

- a) administrazio-kontratuak interpretatzeko.
- b) kontratuok betetzean sortutako zalantzak ebazteko.
- c) herritarren interesa dela-eta kontratuak aldatzeko
- d) kontratuok suntsiaraztea erabakitzeo eta suntsiaraztearen ondorioak.

Edozein modutan ere, kontratuaren hartzailea entzun egin jako, azaroaren 14ko. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 211. artikuluaaren arabera, herri-alorreko Kontratuen Legearen testu bategina onesten dauena.

HAMAIKAGARREN BALDINTZA.- Proposamenak zabaltzea

Proposamenak zabaltze egingo dira hilabeteko epealdian gehienez ere, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen dan egunetik hasita.

Kontratazio Mahaia proposamenak aurkezteko epea amaitut a batzartuko da eta "A" gutunazalak irekiko ditu eta barruan daukaten administrazio-agiriak kalifikatuko ditu

Beharrezkoa bada, Mahaiak gehienez ere hiru eguneko epea emango dau lehiatzaileak zuzendu dagiazan aurkeztutako agiritan egindako akats edo konpondu ahal diren hutsegiteak.

Ondoren, "C" gutunazalak ireki eta aztertuko ditu.gutunazal horietan egongo dira aztertzeko balio-eritzi baten mendean dagozan irizpideak.

Aipatu proposamenak irakurri ondoren, Mahaiak eskatuahal izango ditu beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak, haiek baloratzeko Plegu honetan ezarritako irizpide eta haztapenen arabera. Kanpoko aholkularien edo teknikarien parte hartzeak sortu ahala dauen diru-kostuak esleipendunaren pentzura izango dira.

HAMABIGARREN BALDINTZA.- Agiriak eskatzea

Batzartuta berriro Kontratazio Mahaia, balio-iritzia eskatzen daben irizpideei emondako haztepena jakitera emongo da. Jarraian "B" kartazalak irekiko dira.

Ikusirik balorazioak –aztertzeko balio-iritzi baten mendean dagozan irizpideena ("C" kartazala) eta berez azterteketa irizpideena ("B" kartazala)-,Kontratazio Mahaiak kontratu honen esleipenduna proposatuko dau.

Kontratazio organoak eskarera hau egingo dio abantailarik onena aurkeztu duen lehiatzaileari: errekerimendua jaso eta hurrengo hamar laneguneko epearen barruan aurkezte dokumentazioa, justifikatuko dauena betetzen eta egunean dituela zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak, edota baimena emotea kontratazio organoari egiaztapen horiek zuzenean lortzeko; justifikatuko duena, era berean, kontratua gauzatzeko baliabideak, eskaintzan adierazi dituenak, badituela.,

Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 64. artikuluaaren arabera,

Behin-betiko fidantza eratzea eta erantzunkizun zibileko poliza izenpetzea konpromiso idazkia aurkeztu ezker.

HAMAHIRUGARREN BALDINTZA.- Behin betiko bermea.

Abantailarik handiena daukan eskaintza aurkeztu dauen lehiatzaileak bermea jarri duela egiaztatu egin behar dau –esleipenaren zenbatekoaren % 5a, Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita.

Berme hori honako modu hautakoren batean emon ahal izango da:

a) Dirutan edo Herri-Zorzareren baloreetan, kasu bakoitzean, Lege hau garatzen duten arauetan ezarritako baldintzen arabera. Eskudirua eta idaztohartutako baloreak ibilgetu direlako ziurtagiriak aurkeztu behar dira Gordailu Kutxa Orokorrean edo bere sukurtsaletan, Ekonomia eta Ogasuna ordezkariztetan kokatutakoetan, edo parekidea den Kutxa edo establezimendu publikoan, eragina sortu behar daben autonomia erkidego edo kontratatatu egingo daben toki erakundeetan , Lege hau garatzen duten arauak xedatzen dabezan modu eta baldintzetan.

b) Abal bidez, Lege hau garatzen daben arauak xedatutako modu eta baldintzetan prestatuta bankuek, aurrezki kutzak, kreditu kooperatibak edota elkarren bermera ko sozietateak, Espainian jarduteko baimena duten heinean. Abal hori aurreko a) letran adierazitako establezimenduan ezarri behar da

c) Kauzio-aseguruaren kontratu bidez, hura Lege hau garatzen duten arauak xedatutako modu eta baldintzetan eginda, arlo horretan jarduteko baimena duen aseguru-erakunde batekin. Aseguruaren ziurtagiria emon behar da aurreko a letran adierazitako lekuetan.

Bermea ez da itzuliko edo indargabetuko, berme epea amaitu eta kontratua behar bezala bete arte.

Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 100. artikuluan ezarritako bitartekoei erantzungo deitso.

HAMALAU GARREN BALDINTZA.- Kontratuaren esleipena.

Eskatutako agiriak jasota kontratazio organoak kontratua esleitu beharko dau agiriak jaso eta ondoko bost egun balioduneko epean.

Baldintzen agirian azaltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat egonez gero, ezin izango da adierazi lehiaketa bertan behera geratu dela.

Esleipena arrazoitu egingo da, hautagai edo lehiatzaileei jakinaraziko jakie, eta, aldi berean, kontratatugilearen profilean argitaratuko da.

Edozein modutan ere, Jakinarazpenak, beharrezkoa den informazioa edukiko dau, baztertutako lizitatzaileak edo alde batera utzitako izangaiak aukera izan dagian, behar bezala oinarritutako errekurtsoa aurkezteko adjudikazio erabakiaren aurka. Zehazki, hurrengo alderdi hauek jaso behar ditu:

- Baztertutako izangaiei dagokienez, baztertze horretarako izandako arrazoiak azalpen laburra.
- Esleipen-jardunbidetik baztertutako lehiazaleei dagokienez, euren eskaintza baztertzeko izandako arrazoiak azalpen laburra.
- Edozein modutan ere, esleipendunaren izena, ezaugarriak eta proposamenaren abantailak, erabakigarriak izan direnak bere eskaintza gainontzeko lehiazaleek egindako eta onartutakoetatik bereizi eta hautatzeko.
- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua gauzatzeko epea adieraziko da.

HAMABOSGARREN BALDINTZA.- Kontratua gauzatzea

Kontratua gauzatu egingo da administrazio-agiri batea hamabost laneguneko epearen barruan, behin betiko esleipena jakinarazazten dan egunetik aurrera kontatuta. Dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein jendaurreko erregistrora heltzeko

Kontratu-hartzaileak eskatu ahal izango du kontratua ageriko eskrituran jasotzea. Horren gastuak bere pentzura izango dira

Kontratua ezin bada, kontratu-hartzaileari egotz daitezkoan arrazoiak direla-eta, , lehen adierazitako epe horretan gauzatu,

Gorlizko udalak erabaki ahal izango dau behin betiko bermearen gainean jarritako behin- behineko bermearen zenbatekoa bereganatzea.

HAMASEIGARREN BALDINTZA.-

Derechos y Obligaciones del Adjudicatario.

Kontratua bet egingo da baldintzotan ezarritakoaren arabera eta kontratazio-organok kontratu hartzaileari emondako jarraibideen arabera.

Kontratistak izango du lanen eta prestazioen kalitate teknikoaren eta egindako zerbitzuen ardura, bai eta kontratua gauzatzean akatsak egitearen edo gauzak egin gabe uztearen edo metodo desegokiak erabiltzearen edo ondorio okerrak ateratzearen ondorioz administrazioari edo hirugarrengei eragindako ondorioak ere.

Kontratu-hartzailearen berariazko betebeherrak:

Kontratistak beharrezkoak diren giza baliabideak eta materialak jarri edo atxiki behar ditu kontratua gauzatzeko

Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 64. artikuluan

— Kontratu-hartzaileri dagokiozan gastuak: Kontratu-hartzailearen pentzura izango dira lehieketa eta esleipen-iragarkiari dagokiozan gastuaketa zergak, gehieneko muga 1.500 €koa dala kontratua gauzatzean, Halaber, indarreko xedapenen arabera ezartzen direnak ordaindu behar ditu, eurretan ezarritako ordainketa-moduei eta zenbatekoei lotuta.

Kontratuaren hartzaileak bete beharko ditu Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 227. artikuluan aureikusten diren baldintzak .

HAMAZAZPIGARREN BALDINTZA.- Prezioen berrikusketa.

kontratua kostuaren % 20ra arte gauzatu denean soilik berrikusi ahal izango dira prezioak, eta esleipen-egunetik urtebete igaro ondoren

Salneurriak berrikusteko formulak KParen adierazlearen arabera izango dira. (Euskal Autonomia Erkidegoko KParen batz bestekoa).

Edozein modutan ere, berrikuspenak ezingo dau hartutako adierzaleak jasotako aldaketaren % 85a gaingitu.

HAMAZORTZIGARREN BALDINTZA.- Bermearen epea.

Kontratuaren xedeak hiru hilabeteko bermealdia izango dau: epe horretan Administrazioak egiaztatu ahal izango dau egindako lanak bet eegiten dituela orriotan eta agindu teknikoan orrietan agindutakoari eta ezarritako aginduei lotzen jakola. Transcurrido el plazo de garantía sin que se hayan formulado reparos a los trabajos ejecutados, quedará extinguida la responsabilidad del contratista.

Bermearen epearen barruan egiaztatuko balitz egindako lanetan akatsak edo okerrak daudela, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari akats horiek zuzentzea erreklamatzeko.

HEMERETZIGARREN BALDINTZA.- Kontratua betetzea

Kontratua beteko da agiri honetan jasota datozen baldintzen arabera eta, hala badagokio, agindu teknikoan orrian jasotakoaren arabera. Aurkeztutako esleipen-eskaintzaren arabera eta kontratazio -organoak emondako kontratuaren hartzaileari emondako jarraibideen arabera.

HOGEGARREN BALDINTZA.- Kontratua aldaraztea.

aldaketak egin ahal izateko, beharrezkoa izango da ondorengo egoera hauetako bat dela behar bezala arrazoitzea:

- Kontratututako prestazioa desegokia izatea kontratuaren bidez erantzun nahi diren beharrak asetzeko, proiektua edo zehaztapen teknikoak idaztean egindako akatsen edo ez-aipatzeen eraginez.
- Ezinbestearen edo ezusteko kasuaren eraginez, prestazioa hasieran zehaztutako baldintzetan egiterik ez izatea.
- Prestazioa nabarmen hobetuko duten aurrerapen teknikoak sartzea komeni izatea, aurrerapen horiek kontratua esleitu ondoren jarri badira merkatuan eskuragarri, teknikaren egoera kontuan hartuta.
- Prestazioa kontratua esleitu ondoren onartutako teknika-, ingurumen-hirigintza-, segurtasun- edo irisgarritasun-beharrei egokitu behar izatea

HOGETA BATGARREN BALDINTZA.- Zigorak ez betetzearen.

Kontratista, berari egotzi daitekiozan arrazoiak direla-eta epe osoari dagokionez, berandu ibili bada, Administrazioak aukeran izango du, edo kontratua amaitzea edo zigorak ezartzea kontratuaren zenbatekoaren 1. 000 euro bakoitzeko 0,20 euro, eguneko.

Atzerapenengatiko zehapenak kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren multiplo batera iristen direnean, kontratazio-organoak kontratua ezeztatze edo zehapen gehiago ezarriz kontratua gauzatzen jarraitu behar dan adosteko eskumena izango du. Azken kasu horretan, kontratazio-organoak kontratua amaitzeko beharrezkotzat jotzen dauen denboraz luzatuko dau epea.

Kontratistak ez badu betetzen kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak-giza-baliabideak edo gauzazkoak, — eransteko baldintza, kontratuaren aurrekontuaren % 10eko zigorra jarriko jako.

Zigorra kontratazio organoak erabakita ezarriko dira, kontratuaren arduradunak –izan ezker- proposatuta, berehala betebeharrekoa izango da, eta horiek kontratu hartzaileari ordaindu beharreko zenbateko osotik edo zati batetik kenduko dira zuzenean; edo, bestela, kasua denean, eratutako bermetik, aipameneko ziurtapenetatik kendu ezin denean

HOGETA BIGARREN BALDINTZA Kontratua suntsitzea

Kontratua suntsitzeko arrazoiak honako xedapen hauetan daude jasota: orriotan, Herri Alorreko Kontratuei buruzko Legearen testuategiaren onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 223 eta 308 artikuluetan jasotako kasuetan. Suntsipena kontratazio organoak erabakiko dau, bere kabuz edo kontratu-hartzaileak eskatuta.



Kontratua kontratu hartzailearen erruz deuseztarazi bada, behin betiko bermea bahitu egingo jak. Dena den, kopuru hori nahikoa ez bada administrazioari eragindako kalte-galeren kalteordaina ordaintzeko, falta den kopurua ere ordaindu egin beharko du.

HOGITA HIRUGARREN BALDINTZA.- Kontratuaren araubidea

Kontratuak administrazio izaera dau. Orriotan ezarritakoa aintzat hartuta arautuko da. Aurreikusita ez dagoena ondorengoan arabera arautuko da, herri alorreko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten dauen azaroaren 14 3/2011 legegintza errege-dekretua. 30/2007 Legea aldi batean garatzen duen 2009ko maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra (2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua). Ordezko gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak .

Erabaki horien aurka egiteko eskumena duen jurisdikzioa administrazioarekiko auzietarako izango da, azaroaren 14ko herri alorreko kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onesten dauen 3/2011 Legegintza Errege Dekretuaren 21.1. artikulua arabera.

Gorlizen, 2014ko otsailaren 13an

**Administrazio Baldintzen orri hau
tokiko gobernu-batzarrak onetsi
egin dau 2014ko otsailaren 13an
egindako batzarraldian.**